

# 41.<

MUSIKEGUNAK

Oñati - 2019



Garaiz iritsi emanaldietara. Emanaldia hasita badago, ezin izango da aretoetan sartu  
Se ruego puntualidad. Una vez comenzado el concierto no se permitirá la entrada

Debekatuta dago argazkiak, filmazioak edota grabaketak egitea  
Se prohíbe fotografiar, filmar o grabar las actuaciones

Mugikorrak itzalita eduki  
Apague el teléfono móvil

## SANTA ANA ANTZOKIAN

Azaroak 3, igandea, 19:00

Capilla Gregorianista Donosti Ereski  
Zuzendaria: Jokin Otamendi

Azaroak 10, igandea, 19:00

Musbika Ensemble

Azaroak 17, igandea, 19:00

Suhar, Gizon-korua  
Zuzendaria: Esteban Urcelay

Azaroak 24, igandea, 19:00

Entrequate, kitarra laukotea

# Santa Ana antzokian

azaroak 3, igandea - 19:00etan

## EGITARUA

### I

1614ko Oñatiko Kodexea. Donostiako Elizbarrutiko Artxibategian jasota dago. Sarre-  
ran, egileak aipatzen du 1614an Oñatiko elizarako egina dela.  
*Códice de Oñati de 1614, Archivo Diocesano de San Sebastián. Al comienzo de dicho  
Cantoral, el autor indica que está hecho para la iglesia de Oñati.*

- Benedicta
- Sancta María, succurre miseris
- Et audientes
- Cantántibus organis
- Valerianus
- Alma Redemptoris Mater
- Ave Regina caelorum

### II

Arantzazuko Benedikta. Ia 500 urte dituzten kroniketan ageri da bertako otoitz  
nagusizat Benedikta.  
*Benedicta de Arantzazu. Aparece en las crónicas del Santuario desde hace unos 500 años.*

- Benedicta tu
- Sicut mirra
- Ante torum
- In ómnibus réquiem quaesivi
- Sancta et immaculata
- O Gloriosa
- Et sic in Sion fermata sum
- Salve Regina

### III

1697 urtean Bidaurretako Sor Maria Magdalenak, koruko bikariak idatzitako liburutik

*Cantoral escrito por Sor María Magdalena en Bidaurreta en 1697.*

- Franciscus vir catholicus
- Coepit sub Innocentio
- Franciscus Evangelicum
- Proles de caelo
- O stupor et gaudium
- Franciscus ut in publicum
- Plaude turba pauperula
- Ave Maris stella

**Capilla Gregorianista Donosti Ereski**

**Zuzendaria: Jokin Otamendi**

## CAPILLA GREGORIANISTA DONOSTI ERESKI

1971. urtez geroztik, "Donosti Ereski Gregoriar Schola" izenarekin ezagutzen den taldeak, Donostiako San Bizente elizako "Sine Nomine" koru eta triple taldean izan zuen bere jatorria. On Gelasio Aranburu Alkain (1896-1968) zuzentzen zituenak.

Donosti Ereski Kultur Elkarteko Schola Gregorianistak berrogei urte baino gehiago daramatza musika gregorianoa osatzen duen kanta-multzo zabalaren hedapen-lanetan, beti ere, gaur egungo interpretazio- korrante berrienak erabiliz.

"Azken mendeetako gipuzkoar gregorianoa" disko-liburua kaleratu berria du (2018ko Abenduan), Gipuzkoako ondare musikala ikertu eta ezagutzera emateko helburuarekin. Lanak hiru mendetako hainbat liburutan jasotako kantu lauen melodia sortak bildu ditu: Oñatiko Kodexa (1614), Azkoitiko Kodexa (1772) eta Hernaniko organista eta irakasle izandako Juan Manuel Larrartek Hondarribiko parrokiarako idatzitako liburua (1828).

Taldeak, emanaldi ugari eskaini ditu, bai Euskal Herrian, bai Estatuko beste herrialdeen barrena ere: Donostiako Musika Hamabostaldiko, Arantzazun (2001), Mutrikuko (2004), Guadalupeko Ermitan (2006) eta Donostiko San Bizente elizan (2018). Baionako katedralean, Iruñean, Santanderreko musika jaialdian, Avilako "Nazioarteko gregoriar ihardunaldietan", Bratislavako (Eslobakia) nazioarteko gregoriar jaialdian, Cuencan, Torroella de Montgri, Seguran, Hernanin, Pasaian, Errenterian.... eta Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan, urrezko eta zilarrezko dominak eskuratuz, gregoriar modalitatean.

Se le conoce con este nombre desde 1971, aunque, realmente, tiene su origen en la Escolania de Tiples y en la Coral "Sine Nómine" de la parroquia de San Vicente de San Sebastián, dirigidas entonces por don Gelasio Aranburu Alkain (1896-1968)

Conscientes de la aportación de las tradiciones locales al caudal del canto gregoriano, el grupo ha decidido llevar a cabo un trabajo de recuperación, investigación y transmisión para que la sociedad tenga la oportunidad de conocer y disfrutar de este tesoro.

Acaban de editar el cuarto disco de estudio, dedicado íntegramente a los Códices/ Cantorales guipuzcoanos de estos últimos 400 años. El trabajo contiene melodías procedentes de varios libros que representan el canto llano de tres siglos diferentes: el Códice de Oñati (1614), el Códice de Azkoitia (1772), y por último, un libro escrito en 1828 por Juan Manuel Larrarte, organista y maestro de Hernani, que se conserva en la parroquia de Hondarribia.

La Schola Gregoriana ha ofrecido numerosos conciertos, tanto en Euskal Herria como en otras poblaciones del Estado Español, a destacar: Quincena Musical de Donostia, Mutriku (2004), Hondarribia (2006) y Iglesia de San Vicente de Donostia (2018); catedral de Baiona, Iruñea-Pamplona, festival de música de Santander, "Jornadas Gregorianas Internacionales" de Avila, Cuenca, Torroella de Montgri, Santo Domingo de la Calzada, Hernani, Segura, Errenteria, Pasaia...etc., "Festival Internacional de Música Gregoriana" de Bratislava (Eslovaquia)... así como en el "Concurso Internacional de Coros" de Tolosa, donde consiguió las Medallas de Oro y Plata en la modalidad de Canto Gregoriano.

## JOKIN OTAMENDI AZURMENDI

1941an Donostian jaioa. Gregoriar musikan lehen pausoak eman zituen Donostiako San Bizente elizako tiple eskolaniako taldean, On Gelasio Aranburu Alkainen gidaritzapean.

1962 eta 1964 urte bitartean, Donostiako Seminarioko koru-zuzendaria izan zen. Ondoren, Madrileko Musika Sakratuaren Goi mailako Institutoan, Samuel Rubio eta Tomás Manzarraga irakasleekin, besteen artean, ikasketak burutu zituen.

Gaur egun, Donosti Ereskiko gizon eta emakumezkoen gregoriar taldeak zuzentzen ditu.

Nacido en Donostia en 1941, dio sus primeros pasos en la música gregoriana en el grupo de tiple de la Escolanía de la iglesia de San Vicente de Donostia, bajo la dirección de Don Gelasio Aranburu Alkain.

Entre los años 1962 a 1964, fue director del Coro del Seminario de Donostia.

Posteriormente terminó sus estudios en el Instituto Superior de Música Sacra de Madrid, teniendo como profesores a Samuel Rubio y Tomás Manzarraga, entre otros.

Hoy en día, dirige el Coro de hombres y el Coro de mujeres de la Asociación Cultural Donosti Ereski.

**Santa Ana antzokian**  
azaroak 10, igandea - 19:00etan

EGITARUA

**Antonio Gaztañetaren Bidaia**

**MUSBIKA ENSEMBLE**

**Enrique Campos, Concertinoa**

**Javier Nacascués, Laura López, Biolin I**

**Federico de Madrazo, Leire Hipólito, Elisene Alzola, Biolin II**

**Iraide Sarria, Loreto Alfonso, Biolak**

**Alejandro Saúl, Biolontxelo**

**Ernesto González, Kontrabaxua**

**Guadalupe López, Klabea**

**Elur Arrieta, Perkusioa**

**Josu Camara, Aktorea**



## Antonio Gaztañetaren Bidaia

Juan Sebastian Elcano-rekin batera, Euskal Herrian beste hainbat itsasgizon garrantzitsu izan ditugu, tartean Antonio Gaztañeta (1656-1728). Musbika Ensembleak, **Antonio Gaztañetaren bidaia** ikuskizun honetan, bere itsasontzian bidaiatzeko aukera eskainiko digu, testu dramatizatu eta musikaren bitartez. Tripazko sokak, klabea, arku barrokoak, larruzko estalkiak eta barroko garaiko kriterio historikoekin interpretatutako musikak Antonio Gaztañetaren garaiko Mutriku herrira eramango gaitu bidaiari ekiteko.

Antonio Gaztañetak, denboran bakarrik ez, bere itsasontzian, Europako eta Ameriketako hainbat herrialdetara eramango gaitu, eta bertako musika eta kultura ezagutzeko aukera emango digu. Marinel ausartaren paperean Josu Camara, *Kukubiltxo antzerki konpainiaren* sortzailea arituko da, eta bertatik bertara kontatuko dizkigu bere abentura eta gora-beherak.

Este espectáculo compuesto por música y texto dramatizado, nos brinda la oportunidad de viajar en el barco de un marinero audaz como Antonio Gaztañeta (1656-1728), junto con Juan Sebastian Elcano, un hombre muy influyente en el mundo naval de nuestro país. Las cuerdas de tripa, los arcos barrocos, el clave, los parches de piel y la interpretación basada en criterios históricos nos llevará al Mutriku de Antonio Gaztañeta, de donde comenzaremos el fascinante viaje en su barco.

Josu Camara, creador de la compañía de teatro Kukubiltxo, en el papel de Antonio Gaztañeta, nos llevará en su barco por países de Europa, y cruzaremos con valentía el Atlántico brindando la oportunidad de escuchar la música de influencia Americana, ya que Antonio viajó muchas veces a las Americas, realizando su primer viaje a los doce años.

## MUSBIKA ENSEMBLE

*Musbika* musika konpainiak estilo ezberdinetako ganbera musikaren interpretazioa hedatzeko asmoarekin sorturiko proiektu bat da.

Musika talde honek, bere ibilbideari 2016ko abenduaren 29an ekin zion Elgoibarko San Bartolome elizaren 300. urteurren ospakizunekin batera. Ensamblea osatzen duten musikariek, Euskal Herriko eta estatuko hainbat orkestra eta talde profesionalekin (El Concierto Español, Capella de Ministrers, Orquesta Barroca de la Universidad de Salamanca, Orquesta Barroca de Granada, Belsize Baroque, Internationaal Barokorkest, Madrid Barroco, Orquesta Barroca El Arte Mvsico, Orquesta Barroca Conde Duque, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Teatro Regio di Parma, Kuraia Ensemble...), Euskal Herriko, estatuko eta maila internazionalako (Amerika, Asia eta Europa) auditorio, jaialdi eta giretan parte hartuz osatzen ari dira beraien ibilbidea.

Errepertorioari dagokionez, euskal izaera duten XVIII. mendeko euskal eta europar musikagileen musika hartu du erreferentziazat konpainiak.

Lullyk bi euskal ninfen (ipar eta hegoaldekoak) tirabirak musikatu zituen Xerxes obran. Jose de Bakedano Gares-Puente la Reinan jaio zen, eta Rameauk berriz, Nafarroako Erreinuko Constanza printzesa eta Foixko dukearen arteko katramila amodio-politiko baten antzezpenerako idatzi zuen *La Princesse de Navarre* obra.

Es un proyecto de la compañía de música *Musbika*, creado con el objetivo de difundir la música de cámara de diferentes estilos.

Este grupo de música comenzó su actividad el 29 de diciembre de 2016, junto con las celebraciones del 300 aniversario de la iglesia San Bartolomé de Elgoibar. El ensemble está compuesto por músicos profesionales vascos que desarrollan su actividad profesional en auditorios y festivales del estado e internacionales (América, Asia y Europa) con orquestas y agrupaciones profesionales como El Concierto Español, Capella de Ministrers, Orquesta Barroca de la Universidad de Salamanca, Orquesta Barroca de Granada, Belsize Baroque, Internationaal Barokorkest, Madrid Barroco, Orquesta Barroca El Arte Mvsico, Orquesta Barroca Conde Duque, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Orquesta Sinfónica de Navarra, Teatro Regio di Parma, Kuraia Ensemble... etc.

En cuanto al repertorio, se puede decir que está formado por música de compositores vascos y europeos del siglo XVIII, con la particularidad de que todas las obras tienen alguna relación con la cultura vasca: Para la obra *Xerxes*, Lully creó la música para este intermedio-ballet, en la que se representa la disputa de dos ninfas vascas (del norte y del sur). Jose de Bakedano nació en Gares-Puente la Reina, y Rameau, compuso la música de la ópera-ballet *La Princesse de Navarre*, obra en la que se representa el enredo político-amoroso entre Constanza (princesa del Reino de Navarra) y el duque de Foix.



**Santa Ana antzokian**  
azaroak 17, igandea - 19:00etan

EGITARUA

SOIRÉE

F. Mendelssohn ..... 2 Geistliche Chöre, op. 115  
(1809-1847) Beati mortui  
Periti autem

Vespergesang op.121  
Adspice domine de sede  
Asperi oculos tuos  
Qui regis Israel  
Asperi oculos tuos  
Lux beata

- F. Schubert ..... Vier gesänge, D. 983  
(1797-1828) Jünglingswonne ("Solang im deutschen")  
Liebe ("Liebe rauscht der Silberbach")  
Zum Rundetanz ("Auf! es dunkelt")  
Die Nacht ("Die schön bist du")
- La pastorella al prato, D. 513
- Der Gondelfahrer, . 809
- Ständchen, D. 920
- A.Bruckner ..... Um mitternacht, WAB 89  
(1824-1896) Mitternacht, WAB 80

**SUHAR gizon-korua**  
**Amaia Zipitria, Pianoa**  
**Juan Ignacio Emme, Biolontxelo**  
**Maite Arruabarrena, Mezzosoprano**  
**Esteban Urzelai, Zuzendaria**

## SUHAR

Abesbatzen munduan esperientzia haundia duten 26 abeslariz osaturiko gizonen korua da Suhar. 2018ko udazkenean sortu zen, gizonen abesbatzentzako erreperatorioa maila gorenean lantzeko asmoarekin. Esteban Urzelai Eizagirre da taldearen sortzaile eta zuzendaria, eta koruen munduan duen esperientzia luze bezain oparoa proiektu honen bitartez erakustera ematea dauka helburuen artean, Amaia Zipitria piano jolea lagun duelarik.

Gizonen abesbatzek berebiziko garrantzia izan dute gure kultur ondarean. Hasierako "orfeoia", elizetako koruak, otxoteak eta antzeko taldeak Euskal Herriko kulturaren protagonista izan dira betidanik.

Suhar, gure abesbatzen iraganetik abiatu eta gizonen koruek beren lekua izango duten etorkizunera eramango gaituen katebegia izateko asmoz jaio da. Iragana eta etorkizuna lotuko dituen zubia, alegia. Gure sukaldariak duela zenbait hamarkada beren ogibidea eraldatu zuten, euskal sukaldaritzaren berria sortuz. Hala, Suharrek gure arbasoen gizonen koruen kontzeptua eraldatu nahi du, erroei gogor eutsiz, baina proposamen berri eta kalitatezkoak eskainiz.

Lehendabiziko proiektu honetan, Suharrek alemaniar eta austriar musikagile erromantikoen musika dakarkigu, gizonen koruentzat obra kopuru amaigabea idatzi zen garaiko musika. "Soirée" izenburupean, Mendelssohn, Schubert eta Brucknerren musika-lanak aukeratu ditugu, maitasuna eta gaua hizpide dituzten lanak.

Suhar es un coro de voces graves que inicia su andadura en otoño de 2018, agrupando 26 voces experimentadas en el canto coral, con el objetivo de trabajar el repertorio para este tipo de formación al más alto nivel. Es un proyecto impulsado por el director Esteban Urzelai Eizagirre que, con su amplia experiencia en el mundo coral, quiere hacer de Suhar su proyecto personal. En este proyecto participa también la pianista Amaia Zipitria.

Las agrupaciones corales formadas por hombres han sido una de las formaciones más sólidas de nuestro legado coral. Los iniciales "orfeones", los coros parroquiales, los "ochotes", y otras agrupaciones de diversa índole han sido protagonistas de la tradición coral del País Vasco.

Suhar quiere ser ese eslabón que nos una con nuestro pasado coral y nos lleve a un futuro donde las voces masculinas tengan su espacio. Así como nuestros cocineros tuvieron que reinventarse hace algunas décadas para llegar a la nueva cocina vasca, Suhar pretende reinventar el concepto del coro de voces masculinas, manteniendo una sólida unión con nuestro pasado, pero ofreciendo un producto nuevo y de calidad.

Suhar se presenta con un primer programa de compositores del romanticismo alemán y austriaco, que tanta música escribieron para la formación de coro de hombres. Bajo el título de "soirée" se han seleccionado obras de Mendelssohn, Schubert y Bruckner, relacionadas con la noche y el amor.



## Santa Ana antzokian

azaroak 24, igandea - 19:00etan

### EGITARUA

Flores Chaviano.....	Entre quatre (1984)
(Cuba/España 1946)	
Aita Madina .....	Basque Sonata
(Oñate 1905-1972)	Andante con motto
	Minueto
	Toccata
Javier Blanco .....	Medina Fi Assahab (2009)
(Asturias 1977)	La ciudad en las nubes
Aita Madina .....	Cuarteto No. 1
	Allegro
	Gavota
	Nocturno
	Final



Leonardo Sánchez ..... (Argentina 1966)	Itinerario (suite Argentina) (2003) Norte (huayno) Sur (milonga)
Aita Madina .....	Danza Rapsódica
Aita Madina .....	Lullaby
Miguel Matamoros ..... (Cuba 1894-1971)	Lágrimas Negras (Versión de Flores Chaviano)

#### ENTREQUATRE, KITARRA LAUKOTEA

Carlos Cuanda  
Carmen Cuello  
Manuel Paz  
Jesús Prieto

## ENTREQUATRE

1984an, lau lagun gitarristek jarduera bati ekin zioten elkarrekin, susmatu ere egin gabe urteen poderioz sor zitekeela XXI. mendeko musikaren munduan hain originala den eta hain finkatua dagoen ganbera-musikako talde bat.

2009an, 25. urteurrena ospatzen zutenean, EntreQuatre taldea Grammy Latinoetarako proposatu zuten, laukoteak interpretatutako Orlando Jacinto Garcianen «4 Asimetrías» lanarengatik.

30. urteurreneko ospakizunetan, Entre-Quatre taldeak arrakasta handiz estreinatu zuen Flores Chavianoren 4 gitarra eta orkestrarako bigarren kontzertua, Asturiasko Printzerriko Sinfonikoarekin batera, Oliver Diazen zuzendaritzapean.

2017ko maiatzean, Prague Spring 72 International Music Festival ospetsuan parte hartu zuen, eta entzuleen nahiz kritikaren artean arrakasta handia lortu zuen.

EntreQuatre taldeak lau gitarrentzako obra berrien sorkuntza inspiratu du; hala, Espainiako eta Latinoamerikako musikagile handien hirurogeita hamar lan baino gehiago estreinatu ditu, eta bere erreperitorioak errespetu handia eskuratu du nazioarte mailan eta beste laukote batzuk ere interpretatzen dute.

Berriki bira bat egin dute Txinan barrena, lurraren lehen zirkumnabigazioa ospatzeko programaren barruko hainbat biren abiapuntu gisa, kontzertuak eskainiz Magallaes eta Elkanoren espedizioa ibili zen leku nagusienetan. Era berean, Aita Madina musikagile euskalduna bezalako egile ospetsuen gitarra kuartetorako jatorrizko lanak berreskuratzen eta interpretatzen lan egiten dute.

En 1984 cuatro guitarristas amigos iniciaron una actividad conjunta sin sospechar que pudiera surgir con los años un grupo camerístico tan original y tan afianzado en el panorama de la musica del s. XXI.

En 2009, cuando celebraba sus 25 años, EntreQuatre fue nominada a los Grammy's Latinos la obra "4 Asimetrías" de Orlando Jacinto García interpretada por el cuarteto.


En las celebraciones de sus 30 años, EntreQuatre realiza con gran éxito el estreno del Segundo Concierto para 4 guitarras y orquesta de Flores Chaviano junto a la Sinfónica del Principado de Asturias y con dirección de Oliver Díaz.

En mayo de 2017 se presenta en el prestigioso Prague Spring 72 International Music Festival, obteniendo un enorme éxito de público y crítica.

EntreQuatre ha inspirado la creación de nuevas obras para cuatro guitarras, llegando a estrenar más de setenta de grandes compositores españoles y latinoamericanos, con un repertorio respetado e interpretado internacionalmente por otros cuartetos.

Recientemente han realizado una gira por China, punto de partida de varias giras en un programa que conmemora la Circunvalación de la Tierra, realizando conciertos en los principales sitios donde lo hizo la Expedición de Magallanes y Elcano. Así mismo trabajan recuperando e interpretando obras originales para cuarteto de guitarra de autores tan prestigiosos como el compositor vasco Aita Madina.





# 41.<

MUSIKEGUNAK

Oñati - 2019

L.G. / D.L. SS-947-2019

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Kultura, Lanikidetz, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Cultura, Cooperación,  
Juventud y Deportes



**OÑATIKO UDALA**